

Turista erromantikoa

Javier Rojo

"Negu batez Mallorcan"

George Sand

euskaratzailea: Miren Arratibel / Aintzane Atela

Ibaizabal, 1999

George Sand ezizenaz ezagututako idazle frantziarrak (1804-1876) Chopin lagun zuela Mallorcan pasatutako neguaren kontakizuna agertu da euskaraz, Negu batez Mallorcan izenburuarekin. Izan ere, iparraldeko pertsona kultu batek hegoalde basatira egin zuen bidaiari oinarritzen da kontakizuna, erromantikoen artean antzeko kasuetan ohikoa den miresmen eta arbuioaren nahasketa bitxi baten bidez eginga. Alde batetik, primitibismoaren bila zihoala zirudien, gizaki zibilizatuek ukitu gabeko naturaleza aurkitu nahian. Baina, bestaldetik, idazlea kexu zen, behin eta berriro, bere lurraldean izaten zituzten erosotasunak falta zituztelako. Gauzak horrela, liburu honek ia-ia amorruez beteriko gida turistiko maltzurra dirudi, non bidaiaren kontakizuna, irlako paisaia ederraren eta eraikin zaharren deskripzioa eta beste idazle batzuek hartutako pasarteak (askotan leienden antzeko istorioak kontatzen dituztenak) biltzen baitira. Baina Mallorcako jendeaz hitz egiten duenean, gorrotoaren mugan dagoen sentimendua erakusten du, hango biztanleak akats guztien jabe bihurtzen baititu. Chopin-i buruz, ordea, zeharkako aipamenak, besterik ez. Ametsezko hegoaldearen bila, bere gustuen neurrikoa ez zen errealitate bat aurkitu zuen idazleak bidaiari horretan.

El Correo, 2000-11-01